

IV. taldea

Nola irudikatzen dugu etorkizuneko Kilometroak?

JAIAREN HELBURUA

- Kilometroak jaiaren helburua zehaztu behar da: dirua? Euskara? Ikastola?
 - Gaur egun helburuak kale egiten du, jai “tabernikola” bat antolatzen dugu eta zirkuitua baliatzen dugu jendea eszenatokiz eszenatoki eta txosnaz txosna mugitzeko.
 - Helburu ekonomikoa egunetik kendu beharko litzateke eta urtean zehar bideak topatu dirua lortzeko: zozketa, arropa...
 - Zeintzuk izan daitezke helburuak:
 - Ikastolaren baloreak harrotasunez erakusteko eguna: zer eta nola egiten den erakusteko eguna. Ikastola erakutsi.
 - Helburu ekonomikoaz gain, helburu komunikatiboa: zerk egiten gaitu beste eskolen desberdina, gure bereizgarriak zeintzuk diren erakutsi
 - Ikastola eta familiak batzea
 - Ikastola umeak sortzea
 - Euskaltzaleak biltzeko tokia eta eguna izatea. Helburu ekonomikoa kendu eta euskara indartu
 - Egun batez euskaldun sentitzea
 - Jai eguna izatetik ikastolaren eguna izatera pasatzea

ZER NOLAKOA NAHIKO GENUKE:

KENDU/ALDATU:

- Musikaren pisu espezifikoa kendu beharko litzateke
- Egunaren koste eta irabazien azterketa egin beharko litzateke, agian askoz jai xumeagoa egin daiteke.
 - Boluntarioak lan egiten dute baina irabaziaren zati handi bat 3.ekoek daramate: musikariak, hornitzaileak ... Kontraesan handia da. Lan eta gastu ikaragarria da eta datozen taldeak irabazten dute, erakusleiho baita eurontzat. Eskatu tarifak merkatzea.

GEHITU/MANTENDU:

- Erronka
- Parte hartzea handitu
- Erronka kirola den bezala, kilometroak jaia kulturalagoa behar luke izan, ikastola bakoitzak bere eredu kulturala adierazteko gunea
 - Irekiagoa, parte hartzaileagoa, konpromisoduna
 - Gauza berriak eskaini behar dira: IKT, produktu berri eta merkeak
 - Musikaz gain, dantza, mahai inguruak, hitzaldiak... txertatu

AZTERTU BEHARREKOAK:

- Helburua ez bada ekonomikoa, ez dauka ikastola bakar batek antolatu beharrik.
 - Ikuspegi nazionala: 5 jai ala bat?
 - Eguna antolatu bai baina printzipioen berrazterketa
 - Festa bakarra eginez gero, ikastola konkretuek izan dezaketen behar soziala edo komunikatiboa ez litzateke aseko
 - Festa bakarra balitz, herriz herri egin beharko litzateke ala toki finko bat betiko? Abantailak eta desabantailak aztertu
 - Festa bakarra balitz, profesionalizatzea eta ateratzen dena behar handiena duen ikastolarentzat izatea
 - Oraingo festaren antzekoa mantenduko balitz, 5 gune ala gune bakarra? Gune bakar batek aseko luke jendearen nahia?
 - Gazteak??? Ze gazte mota etortzen da, zein helbururekin? Nolakoak dira?
 - Arropa kontuari buelta bat eman beharko litzaioke
 - EHIn aldetik antolaketa mailako exijentzia gero eta handiagoa da, kontuan izan gabe ikastola horren ahalmena eta batzuetan kondena bat bihurtzen da

PROPOSAMENAK

- Parte hartzea handitzea, jendea datorrela parte hartzera eta ez agente pasibo izatera. Erronka moduko ekintzak antolatu publiko guztientzat
 - Boluntario sare bat sortzea eta denda herri guztietan irekitzea, ez tokatzen den herrian bakarrik
 - Izan dadila gazte eta langabetuentzako erakusleihu eta ez bestelako musika taldeentzat
 - IKTak txertatzea

- Urtea herrirako bakarrik izan beharrea probintzia osora irekitzea ekintzat.